



## ZER DA HAMAIKA ESKU?

Programa instituzional bat da; hain zuzen ere, ikastetxeetan egindako kanpo-ebaluazioetan (PISA, diagnostiko-ebaluazioa [DE]) ateratako emaitzen hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa murriztera bideratuta dago. Programa horrekin, ikasleen gaitasunen garapen-maila hobetu nahi da eta, horretarako, lehen fasean, emaitzetako joera negatiboa aldatzea da xede eta, gero, ikasle horiek hasierako mailatik maila ertainera igarotzea.

Programa honen garapenerako eragileen inplikazioa beharrezkoa da, ikasle-talde honekin modu esanguratsuan esku-hartuko dutenak; adibidez:

- ikastetxea hezkuntzaren esku-hartzerako testuinguru normalizatu bezala;
- familiak, eremu ez formalean ekintzarako ezinbesteko lotura;
- euskal hezkuntza-administrazioaren unitateak eta zerbitzuak, hala nola: Laguntzarako eta ikuskapenerako zerbitzuak eta ISEI-IVEI; eta
- Eusko Jaurlaritzaren sailak (Osasuna, Gizarte-politikak...)

## ZERGATIK PROPOSATU DA PROGRAMA?

Hainbat ebaluazioren –PISA eta Diagnostiko Ebaluazioa– emaitzak aztertu ditugularik, ikasleen zati batek EAEko batez bestekoak baino curriculum-maila nabarmen txikiagoak dituela konturatu gara. Aurreko urteetan egindako ebaluazioetan ere atera izan da datu hori eta azken hamar urteotan joera areagotu egin da.

Sail hau kezkatuta dago egoera horrekin; beraz, emaitza horiek zergatik atera diren aztertu dugu sakonki eta derrigorrezko hezkuntzan eskolatutako ikasleen egoerari, bereziki, erreparatu diogu. Administrazioaren eginbeharra da bere ikasleen funtsezko eskubideen alde ahal duen guztia egitea, bai eta baliabide guztiak eskaintzea ere, haiekin zerikusirik ez duten zirkunstantzien eraginez, arreta gehien behar duten ikasleek laguntza eta babes handiagoa izan dezaten bizi osoan pertsona moduan garatzearen.

Horrela, bada, Administrazio honek jakin badaki ikastetxea dela ikasleekin esku hartzeko eremu egokiena, hobetzeko aukera ugari sortzen baitira testuinguru horretan. Horregatik, ikasle horiek hartzen dituzten ikastetxeen ezaugarriak zehatz-mehatz aztertu ditugu eta hainbat esku-hartze ildo zehaztu ditugu.

Hori guztia aintzat hartuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aburuz beharrezkoa da euskal hezkuntza-administrazioak ikastetxeen aldeko apustu argia egitea, betiere ikastetxe horietako ikasleen emaitzen eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek hainbat gaitasunetan lortutako batez bestekoaren arteko aldea % 5 baino handiagoa denean.

Hamaika Esku programaren bitartez, ikastetxe horien eskura jartzen dira beste ekimen eta esperientzia batzuetan hezkuntza-emaitzak hobetzen dituztela frogatu duten baliabide eta neurriak. Hamaika Esku izenak esan nahi du esku-hartze eta jarraipen

lerro asko eta desberdinak daudela. Lerro horiek martxan jartzea beharrezkoa da, esfortzuak bateratu behar dituzten profesionalak eta eragileak asko baitira.

### ZER LORTU NAHI DA?

Programa horren xedea honako hau da: EAEn ahalik eta hezkuntza-mailarik onena lortzea; horretarako, hasierako mailatik gora dauden ikasleen ehunekoa nabarmen areagotzeko zailtasunak dituzten egoeretan ahalik eta emaitzarik onenak lortzen lagunduko duten prozedurak bultzatu behar dira.

Hamaika Esku programak hasierako mailatik gora jartzen zailtasunak izan dituen ikasleen sektorean jartzen du arreta eta prozedura eta estrategia desberdinak bultzatzen ditu hurrengo **helburuak** lortzeko asmoz:

-Ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzea, hiru ikasturteko epean emaitzen joera negatiboa aldatzeko.

-Gaitasunetako hasierako mailetan dauden ikasleen ehunekoa nabarmen murriztea.

### ZEIN EZAUGARRIK DEFINITZEN DUTE HAMAIKA ESKU Programa?

*Hamaika Esku* programaren lehen faseak 3 ikasturteko iraupena izango du. Zuhurtziatzeko denbora horretan, ikastetxeetan beste jokamolde bat finkatuko da, abiaraziko baliabideek potentzial guztia ustiatuko dute eta ikasleen hezkuntza-emaitzetan hobekuntza sumatzen hasteko aukera egongo da.

Hamaika Esku programa garatzeko faktore erabakigarria konpromisoa da, **ikastetxe guztiaren konpromisoa**, zuzendaritza-taldea buru dela. Esku-hartzen duten agente guztiek –irakasleek eta ez-irakasleek– eragina dute hezkuntza-prozesuaren bilakaera egokian, eta ezinbestekoa da programan inplika daitezen. Ikastetxeetan egiten diren gainerako ekimenen kasuan bezalaxe, zuzendaritza-taldearen zeregina erabakigarria da hasiera-hasieratik: ikuspegi estrategikoa, estatu guztiak koordinatzea eta abar. Era berean, familia eta ikasleek ere inplikaturik daudela sentitzea oso garrantzitsua da, programaren proposamena eta xedea euren artean ezartzeko.

*Hamaika Esku* programan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren baliabide guzti-guztiak martxan jartzen dira, honela:

- Sailaren zerbitzu eta unitate guztien arreta *Hamaika Esku* programan sartutako ikastetxeetara bideratuko da, eta ikastetxe horietako esku-hartzei emango diete lehentasuna.
- Hezkuntzaren Ikuskapenak eta Laguntza Zerbitzuek (Berritzeguneak) ekintza-planetan, lehentasunen arabera, ekintzak eta esku-hartzeak planifikatzen dituzte *Hamaika Esku* programako ikastetxeekin: trebakuntza-, aholkularitza- eta jarraipen-programak.
- Sailak ikasturte guztietan abiarazten dituen deialdiei dagokienez, *Hamaika Esku* ikastetxei berariazko eta lehentasunezko tratamendua emango zaie.

- Sailaren giza baliabideak planifikatzeko eta ikastetxeak irakasleez hornitzeko orduan, beste gauza batzuen artean, hurrengo neurriak jasotzen dituzte: lanpostuaren profila beharrian errealetara egokitzeko eta ikastetxeko proiektuaren inguruan sinergiak biltzeko zerbitzu-batzordeak, zuzendaritza-talde egonkorren trebakuntzarako eta zuzendaritza-proiektuak dituztenentzako laguntzak eta malgutasun handiagoa ikasleen eta irakasleen plangintzan eta antolakuntzan.
- Sailak beste neurri mota bat ere jarri du martxan: Bigarren Hezkuntzako masterreko eta irakasleen Eskoletako ikasleek *Hamaika Esku* programan parte hartzen duten ikastetxeetan praktikak egiteko aukera izatea, eta programa barruko ikastetxeen ezaugarri garrantzitsuak biltzen dituzten gradu edo master amaierako lanak eta ikerketa-bekak egiteko aukera eskaintzea.
- Sailak aniztasunaren tratamendurako eta eskola-arrakasta hobetzeko dituen baliabide eta neurri espezifikoek lehentasuna izango dute Hamaika Eskun txertatutako ikastetxeetan.
- Hamaika Esku programan, halaber, ikastetxeetako hezkuntza-lanean eragina duten agenteen lankidetzak eta inplikazioa ere lortu nahi da: Unibertsitatea, eragile sozioedukatioak...

## **ESKU HARTZERAKO IRIZPIDEAK**

Jarduteko ildoak honako irizpide hauetan oinarrituko dira:

- Ikasle bakoitzaren lehentasunezko premietara egokituko dira.
- Irakaskuntzako-ikaskuntzako prozesuarekin lotutako helburuek lehentasuna izango dute eta, bereziki, oinarrizko ikaskuntzak eskuratzea xede dutenek.
- Helburu eta jardunak hainbat mailatarako proposatzea: ikastetxea, ikasgela eta norbanakoa.
- Estrategien aniztasuna ikasleen aniztasunari erantzuteko.
- Jardun eraginkor eta efizienteak, helburuak betetzera bideratutakoak.
- Jardunen jarraipena eta ebaluazioa, prozesuan eta helburuen betetze-mailan arreta jarrita.
- Programa garatzeko, ikasleen prestakuntzarekin lotura duten eragile guztiek modu koordinatuan jardun behar dute, ikasleen emaitzak hobetzeko lagungarri diren alderdiak hobetzarren ikastetxearen funtzionamenduan.
- Bi aldeko planteamendua ekintza-ildoan plangintzan eta garapenean (administratibotik ikastetxera, eta alderantziz).
- Ikastetxeen zailtasun, premia eta indarguneetan, alde batetik, eta bestetik, ikerketa pedagogikoaren arabera hobekuntzan eragin handiena duten alderdietan oinarritutako jardun-ildoak bultzatzea.
- Ikasle bakoitzaren ezaugarrietara eta egoerara egokitutako askotariko jardunak.

- Ikastetxea lider izatea lan-ildoak erabakitzen, plangintzan, garapenean eta barne-ebaluazioan.
- Hezkuntza-komunitate osoaren (familiak, irakasleak, ikasleak...) inplikazioa, baina batik bat, irakasleena.
- Irakasleen prestakuntza gakoa da.
- Lankidetzak, bidean laguntzea eta aholkularitza, gertukoa eta sistematikoa, eskaintzea ikastetxeei, administrazioaren agenteen aldetik (Berritzeguneak eta Ikuskaritza), zailtasunen eta premien gaineko hausnarketa-prozesuan, jarduteko ildoak hautatzeko garaian, abiapuntuko egoera identifikatzean, jardunen plangintza egitean, ebaluatzean, ondorioak ateratzean eta hobetzeko alderdiak zehaztean.
- Hamaika Esku programaren ekintza-ildoak integrazioa zentroko proiektuetan (Hezkuntza Proiektua, Zuzendaritza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hobekuntza Plana, Urteko Plana).
- Praktikaren inguruko hausnarketa.
- Praktika onak partekatzea, zentro eraginkorren sarearen laguntzaz.
- Zailtasun handienekin lan egiten duten ikastetxeetako jardunbide egokiak eta esfortzuak aintzatestea, autonomia-kuota handiagoak emanda.
- Informazioa ematea hezkuntza-komunitateari.

### **JARDUERA ILDO NAGUSIAK:**

Hamaika Esku programak sei ildo nagusi edo hezkuntza-eremu ditu, oinarrikoak eta funtsezkoak direnak proposatutako helburuak betetzeko:

#### **1. Programaren sustapena, jarraipena eta koordinazioa**

Hamaika Esku programaren ezaugarrietako bat zera da, bai Ikuskaritzako zerbitzuek, bai Sailak dituen laguntza-zerbitzuek programaren jarraipena egin behar dutela gertutik eta, horretarako, agenteek programaren plangintzan eta garapenean parte hartu behar dute.

Sailak gertuko jarraipena egiteak zera esan nahi du, hainbat estamentuk hainbat mailatan parte hartzen duela programan: arduradun politikoek, administrazio teknikek, Ikuskaritzak, Berritzeguneek eta ISEI-IVEIk ikastetxeetako zuzendariekin eta irakasleekin elkarlanean jarduten dute, guztion artean lor dezagun Hamaika Eskuko ikastetxeetako ikasleek emaitza hobekitzeko.

Horretarako, hiru koordinazio-maila ezarri dira:

- *Batzorde Orokorra.* Hamaika Esku programa diseinatu, sustatu eta gidatzen du, eta jarraipena eta ebaluazioa ere egiten dio, hezkuntza-sistemako jardun orokorraren barruan. Hezkuntzako sailburuordea da buru eta honako hauek dira kide: Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria, Ikastetxeen zuzendaria,

Langileen zuzendaria, ikuskatzaile orokorra, Berritzegune Nagusiko zuzendaria eta ISEI-IVEIko zuzendaria.

- *Batzorde Teknikoa. Hamaika Esku* programaren helburuak betetzeko lan-materialak diseinatzen ditu. Batzorde Orokorraren ideiak garatzen ditu programan parte hartzen duten ikastetxeen bitartez bideratzeko, eta planaren garapena kudeatzen du, ikasle horiekin esku hartzen duten agente, sail eta erakunde guztiekin elkarlanean. Aldi berean, proposamenak igortzen ditu eta Batzorde Orokorrari programaren bilakaeraren berri ematen dio. Berritzegune Nagusiko zuzendaria eta horretarako aukeratutako ikuskatzaile orokorra dira buru. Laguntzarako zerbitzuen (Berritzeguneak) aholkulariek eta Hezkuntza Ikuskaritzaren langileek osatzen dute Batzordea, eta gainera, ikastetxeetako profesionalek ere parte hartu ahal izango dute.
- *Ikastetxeko Batzordea*. Programak ikastetxean duen garapena gidatu, antolatu eta gainbegiratzen du. Batzorde hori hiru hilean behin bilduko da, gutxienez. Ikastetxeko zuzendaria da buru. Osaera ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunak aintzat hartuta aldatu ahal izango da. Honako hauek gutxienez egongo dira Batzordean: Ikuskaritza, Berritzegunea, ikasketaburua, orientatzaile edo aholkularia, ikastetxeko irakasleak, familien ordezkariak, ikastetxean ikasle horiekin lan egiten duten elkarteetako ordezkariak...

*Hamaika Esku* programa hezkuntza-arloko gaiak koordinatzen dituzten Sailletako Batzordeetan eta Sailen arteko Batzordeetan aurkeztuko da (Osasun Saila, Gizarte Politiketako Saila...), politika horietan lehentasuna izan dezaten.

## **2. Antolamendua eta plangintza.**

Zuzendaritza Taldeen egonkortasuna eta ikastetxearen errealitatearekiko hartzen duten konpromisoa –zuzendaritza-proiektuen bitartez– jardun-eremu garrantzitsuak dira programa horretan. Horri dagokionez, Hamaika Esku programan parte hartzen duten ikastetxeen egoerak desberdinak dira. Ikastetxeen % 52,8ak proiektua duen Zuzendaritza-taldea du. Kasu batzuetan, Hamaika Esku Programa beraren planteamenduak bultzatu du zuzendari batzuk zuzendaritzako deialdira aurkeztu izana.

Hezkuntza-ikerketak zehaztutakoaren harira, ikasle-mota horrekin lan egin duten irakasleen lana bultzatu nahi da. Sailaren eginkizunetako bat da irakasle-taldeak indartzea ikastetxeak lehenesten dituen ekintza-ildoak garatzeko gai diren profesionalekin. Irakasle horiek, aldi berean, lanaren zailtasunei aurre egiteko motibazio handiagoa izatea bilatzen da, eta ikastetxean lan-giro ona sortzean inplikazio handiagoa izan dezatela, ikasleekin afekziozko harreman bat eta haiekiko itxaropen altuak izateaz gainera.

Horretarako, zerbitzu-batzordeen prozedura bat jarri da martxan, ikastetxe bakoitzaren Programaren ezaugarrien arabera lanpostuen profila osatzen laguntzeko.

### **3. Baliabideak eraginkortasunez antolatzea**

Orokorrean, hurrengoak ditu oinarri programak: ikastetxeotan ditugun baliabideen erabilera hobetzea, koordinazio-lana eta gure ikasleen prestakuntzan modu batera edo bestera esku hartzen dugun hezkuntza- eta gizarte-eragile guztien partaidetza.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, bere baliabideak planifikatzeko irizpide nagusi gisa, aipatutako ikasleei arreta ematea eta beren beharrak asetzea jo du lehentasun. Alabaina, horrek ez du esan nahi ikastetxeoi baliabide guztiak emango zaizkiela automatikoki, baizik eta baliabideon eskaera behar bezala justifikatzen dutenek lehentasuna izango dutela. Tratu hori emateko, baliabideen erabilera eraginkorra egiaztatu beharko da, jarraipena eta ebaluazioa eginda. Era berean, beharrezkoa da programa eta baliabide guztiontzako helburu zehatzak ezartzea ikastetxe bakoitzean, bai eta *Hamaika Esku* programak horiei guztiei koherentzia ematea ere.

### **4. Neurri espezifiko berriak (LABURTU GEHIEGI EZ OTE?)**

- *Unibertsitateko Practicum*. EHUren eta aipatutako sailaren arteko lankidetzahitzarmenaren barruan akordio bat lortu da. Hala, Bigarren Hezkuntzako Masterreko ikasleek praktikak egin ahalko dituzte ikastetxeetan, *Hamaika Esku* programakoak baldin badira. Gainera, masterraren curriculumean presentzia izango dute *Hamaika Esku* programak eta sailaren beste proiektu global batzuek. Era berean, hitzarmen horretan beste konpromiso bat jasoko da, zehazki, *Hamaika Esku* programako lan-ildoetako lotutako eskolako gaiak ardatz izango dituzten master-amaierako lanak, ikasketa-amaierako proiektuak, ikerketarako diru-laguntzak eta bestelako azterketa- eta ikerketa-tresnak egitekoa.
- *Irakasleen Unibertsitate Eskolak*. Lankidetzahitzarmen bat sortzen ari dira irakasleen eskola desberdinen eta Sailaren artean, ikasketa horiek egiten dituztenek *Hamaika Esku* programako ikastetxeetan praktikak egiteko aukera izan dezaten. Hitzarmen horretan ikerketa-ildo berria ere biltzen da, egun Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte-Hezkuntzako graduetan egin behar direnak. Lanok *Hamaika Esku* programaren lan-ildoekin lotutako hezkuntza eta gizartearen alorreko gaiak izango dituzte hizpide. Halaber, lankidetzahitzarmenean ikasleen borondatezko kredituak aitortzeko aukera sartuko litzateke, baldin eta *Hamaika Esku* programako ikastetxeetan egiten badituzte kredituok.
- *Beste erakunde batzuetako hezkuntza- eta gizarte-proiektuak*. Atal honetan, udal batzuk ikastetxeetan garatzen ari diren hezkuntza- eta gizarte-proiektuen eta programaren arteko loturak ezarri nahi dira, edota dagoeneko finkatutakoak sendotu.

### **5. Familien inplikazioa**

Familiek lan-plan horietan parte hartzearen bidez emaitza oso positiboak lortzen ditugu, Hamaika Esku Programako xedeak erdiesteko ezinbesteko alderdia izateaz gainera. Hartara, familiekin lotutako hiru lan-ildo ezarri dira:

- *Informazioa eta partaidetza.* Familiek programako lan-ildoen eta beren garapenaren inguruko informazioa jaso behar dute, bai eta ebaluazioen bidez behatzen diren emaitzen ingurukoa ere. Gurasoen elkartean eta Ordezkaritza Organo Gorenen –OOG– bidez presentzia izateaz aparte, familiek zuzeneko partaidetza dute ikastetxe bakoitzeko *Hamaika Esku* Batzordean.
- *Prestakuntza.* *Hamaika Esku* programako lan-ildo horretan parte hartzen duten ikastetxeek programarekin lotutako gaien inguruko familien prestakuntza sustatuko dute. Zenbait ikastetxetan Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroekin lankidetzan jardungo da.
- *Ikas-komunitateak.* Proposatutako helburuak lortzeko, oso egokitzat jotzen dugu familiek, bai eta boluntarioek ere, Ikaskuntza Komunitateetan ezarritako estrategien bitartez parte hartzea. Horregatik, Ikaskuntza Komunitateetako proiektuak lagundu eta sustatuko ditu sailak, *Hamaika Esku* programan parte hartzen duten ikastetxeetan.

## **6. Eragileekin lankidetzan aritzea.**

Gutziz ados gaude «ume bat hezteko, tribu oso bat behar da» esaldi entzutetsuarekin. Hori dela eta, hezkuntzan aurrerapausoak egiteko, ezin gara bakarrik aritu, beste eragile batzuekin elkarlanean jardun behar dugu helburu berberak lortzeko, alegia, gure ikasleen eskola-arrakasta eta hezkuntza-prozesuan desabantaila-egoeran daudenei laguntza ematea.

Hartara, koordinazio-lana sustatuko dugu ondorengoekin:

- Osasun Saila: ikastetxeetan bertan jarduketa sistematizatuak, prebentzio-proiektuak, jarraipen-kontrolak eta gure ikasleen osasun fisiko eta mentala hobetzeko beste edozein jarduketa gauzatzea lortu nahi da.
- Gizarte Politika Saila: gizarte-desabantailan egoteko arriskua duten ikasleek ikastetxeetan bertan babesa eta laguntza jasotzea bilatuko dugu.
- Segurtasun Saila: sare sozialen erabilera desegokiarekin lotutako gaietan.
- Beste erakunde publiko edo elkarte batzuekin: helburua horiekin elkarlanean aritzea da *Hamaika Eskuko* ikastetxeetako planetan garrantzi handia duten gai espezifikoetan.

## **PROGRAMAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA, ETA HEZKUNTZA KOMUNITATEARI INFORMAZIOA EMATEA**

Ikastetxe bakoitzean planifikatutako jarduteko ildoen garapen-mailaren eta proposatutako helburuen betetze-mailaren jarraipena gauzatzeaz gainera, EAE mailako segimendua ere egingo da.

Hartara, informazio hori etengabe eskuratzeko aukera ematen diguten tresnak eta prozedurak ezarri ditugu, programaren bilakaeraren eta prozesuan zehar lortutako emaitzen inguruko ikuspegi orokorra izateko era horretan.

Urtero-urtero, egindako ebaluazioari buruzko txostena osatuko da. Bertan ez dira soilik programaren urteko garapenari dagozkion datuak txertatuko; garapena aztertu ostean lortutako ondorioak eta horietatik abiatuta egindako ikastetxe zein administrazioarentzako hobekuntza-proposamenak eta gomendioak ere bilduko ditu.

Tartean dauden eragile guztiei eta orokorrean, gizarteari emango zaie txostenaren berri.